

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko azaroaren 27tik abenduaren 3rako astea.**

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**2021/12/04**

- *XEDAPEN OROKORRAK. - OSASUN SAILA. - **AGINDUA, 2021eko azaroaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori. 6123 xedapnea - 1 or.***

## **II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2021/11/27**

- *BARNE MINISTERIOA.- Mugak.- **INT/1304/2021 Agindua, azaroaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. 2021 - 19608 xedapena - 2 or.***
- **OSASUN MINISTERIOA.- Mugak. Osasun kontrola.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 26koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiako sarrera-puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzko 2021eko ekainaren 4koa aldatzen duena. **2021 - 19610 xedapena - 3 or.**

**2021/11/29**

- **OSASUN MINISTERIOA.- Sendagaiak.-** SND/1308/2021 Agindua, azaroaren 26koa, zeinaren bidez eguneratzen den 2021ean Osasun Sistema Nazionaleko sendagaien erreferentzia prezioen sistema. **2021-19643 xedapena - 1026 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA.- Osasun neurriak.-** SND/1309/2021 Agindua, azaroaren 26koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean arrisku handiko herrialdeetatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. **2021-19644 xedapena - 4 or.**

- **UNIBERTSITATE MINISTERIOA.- Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 18koa, Idazkariordetzarena, zenbait tasa telematikoki ordaintzeko prozedura ezartzen duena. 2021-19645 xedapena - 3 or.

## 2021/12/01

- **JUSTIZIA MINISTERIOA.- Mugaketa eta ezarpen judiziala.-** 1052/2021 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, 2021eko programazioari dagozkion ehun eta berrogeita hamasei lurralde-unitate judizial eta lurralde-atxikipeneko epaileen lau plaza sortzekoa. 2021-19797 xedapena - 28 or.
- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Egun baliogabeak.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 24koa, Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez ezartzen den Estatuko Administrazio Orokorren esparruan, 2022. urterako egun baliogabeen egutegia, epeak kontatzeko. 2021-19799 xedapena - 3 or.
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Ezohiko neurriak.** -PCM/1324/2021 Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez argitaratzen den Ministroen Kontseiluaren 2021eko azaroaren 30eko Akordioa. Horren bidez, ezohiko neurriak hartzen dira COVID-19aren hedapena eta kutsatzea eragozteko, Afrika hegoaldeko zenbait herrialderen eta espainiar aireportuen arteko hegaldi zuzenak debekatuz. 2021-19801 xedapena - 4 or.
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA SOZIALAREN MINISTERIOA.- Abalak.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez argitaratzen den Ministroen Kontseiluaren 2021eko azaroaren 30eko Akordioa. Horren bidez, martxoaren 17ko 8/2020 eta uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuen bidez araututako abalen baldintzak egokitzen eta eskaera-epeak luzatzen dira, eta martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuan ezarritako Jardunbide Onen Kodea aldatzen da finantziario abalatua duten bezeroekin berriz negoziatzeko esparruaren barruan. 2021-19802 xedapena - 6 or.
- **ESPAINIAKO BANKUA. -Kreditu erakundeak.-** 4/2021 Zirkularra, azaroaren 25ekoa, Espainiako Bankuarena, kreditu erakundeei eta ikuskatutako beste erakunde batzuei, merkatu-portaerari, gardentasunari eta bezeroen babesari buruzko ezkutuko egoera-ereduei buruz, eta erreklamazioen erregistroari buruz. 2021 - 19805 xedapena - 57 or.

## 2021/12/02

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga.** HFP/1335/2021 Agindua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez garatzen diren 2022. urterako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboaren metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi sinplifikatua. 2021 - 19904 xedapena - 68 or.

- *Gailu elektriko eta elektronikoak.- PCM/1336/2021 Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den gailu elektriko eta elektronikoetan zenbait substantzia arriskutsuren erabilera-murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren III. eranskina. 2021 - 19906 xedapena - 13 or.*
- *Antolamendua.- PCM/1337/2021 Agindua, azaroaren 30ekoa, finantza-kontrolaren alorreko zenbait administrazio-organo sortzen dituen Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusian. 2021-19907 xedapena - 7 or.*
- *INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.- Gizarte Segurantza.- Ebazpena, 2021eko azaroaren 26koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez epe berezi bat ezartzen den azaroaren 11ko ISM/1270/2021 Agindua aplikatuzetik eratorritako aldeak sartzeko. Agindu horren bidez, 2021eko ekitaldirako kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarri arautuak ezartzen dira, Gizarte Segurantzaren Ikatz-meatzaritzako Erregimen Berezian. 2021 - 19908 xedapena - 1 or.*

## 2021/12/03

- **GORTE NAGUSIAK.- Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila urriaren 26ko 23/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira energiaren alorrean kontsumitzaileen babeserako eta elektrizitatearen txikizkako merkatuetan gas naturalaren prezioek izandako igoeraren eragina arintzeko. 2021-20003 xedapena - 1 or.
- **GORTE NAGUSIAK.- OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Zergak. Zerga-informazioa.-** HFP/1351/2021 Agindua, abenduaren 1ekoa, honako hauek aldatzen dituen: 2000ko azaroaren 20ko Agindua, 180. eredua onesten duena, pezetetan eta eurotan, hiri-ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emateagatik lortutako errenta edo etekin jakin batzuen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenarenak; HAC/3580/2003 Agindua, abenduaren 17koa, 156. eredua onesten duena, amatasunagatik kenkariaren ondorioetarako, afiliatu eta mutualisten kotizazioen urteko aitorpen informatiboarena; EHA/3895/2004 Agindua, azaroaren 23koa, 198. eredua onesten duena, aktibo finantzarioekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitorpenarenak; EHA/3021/2007 Agindua, urriaren 11koa, 182. eredua onesten duena, jasotako dohaintza eta ekarpenen eta egindako erabileren aitorpen informatiboarena; EHA/3290/2008 Agindua, azaroaren 6koa, 296. eredua onesten duena, "Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak. Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko aitortpena"; EHA/3481/2008 Agindua, abenduaren 1ekoa, 189. eredua onesten duena, baloreen, aseguruaren eta errenten gaineko urteko aitortpen informatiboarena; HAP/1608/2014 Agindua, irailaren 4koa, 187. eredua onesten duena, inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren edo ondarearen ordezkariak partaidetzen eta akzioen aitortpen informatiboarena; eta HAP/1695/2016 Agindua, urriaren 25ekoa, 289. eredua onesten duena, elkarri laguntzeko eremuan, finantza-kontuen urteko aitortpen informatiboarena. **2021-20004 xedapena - 21 or.**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza.-** Ebazpena, 2021eko azaroaren 29koa, Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Ministroen Kontseiluaren 2021eko azaroaren 16ko Akordioa, 2021-2023ko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatzaren Plan Estrategikoa onesten duena. **2021-20005 xedapena - 73 or.**

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

### **2021/11/29**

- **XEDAPEN OROKORRAK.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.-** 7/2021 FORU DEKRETU-ARAUUA, azaroaren 16koa, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoa. **6010 xedapena - 6 or**

### **2021/11/30**

- **XEDAPEN OROKORRAK-HEZKUNTZA SAILA.-** **241/2021 DEKRETUA, azaroaren 23koa, Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena arautzen duena. 6022 xedapena- 7 or**

### **2021/12/02**

- **BESTELAKO XEDAPENAK.- SEGURTASUN SAILA.-** AGINDUA, 2021eko abenduaren 2koa, Jaurkitutako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) Euskadiko Babes Zibilaren Plana, COVID-19aren pandemiaren beste fase bati aurre egiteko. **2021 - 6099 xedapena - 2 or.**
- **BESTELAKO XEDAPENAK.- OSASUN SAILA-** AGINDUA, 2021eko abenduaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko eskatzen baitzaio lehendakariari, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriak buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) aktibatzeko Jaurkitutako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, COVID-19 pandemiaren fase berriari aurre egin ahal izateko. **2021 - 6100 xedapena - 3 or**

**2021/12/03**

- **XEDAPEN OROKORRAK.- LEHENDAKARITZA.-** 44/2021 DEKRETUA, abenduaren 2koa, lehendakariarena, COVID-19aren pandemiak EAEn eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko dueña.- **2021 - 6101 xedapena - 3 or**

**A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2021/11/29**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRATZIOA.- Batzar Nagusiak.- FORU ARAUAK**
  - 24/2021 Foru Araua, azaroaren 17koa, ingurumenarekin loturiko zerga neurriei eta beste zerga neurri batzuei buruz.- **3862 xedapena - 6 or**
  - 25/2021 Foru Araua, azaroaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzen duena.- **3863 xedapena - 1 or**

**2021/12/01**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRATZIOA.- Arabako Foru Aldundia.- FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK**
  - Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2021 Foru Dekretua, azaroaren 23koa. Aldatzea apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretua, arautzen duena Arabako Foru Ogasunean zerga alorreko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkariak, eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen duena.- **3901 xedapena- 2 or**
  - Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2021 Foru Dekretua, azaroaren 23koa. Aldatzea apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretua, arautzen duena Arabako Foru Ogasunean zerga alorreko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkariak, eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen duena.- **03907 xedapena - 2 or**

**2021/12/03**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Batzar Nagusiak FORU ARAUAK.-** 26/2021 Foru Araua, azaroaren 24koa, 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 2koa, baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudira egokitzeko ez egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egindako aldaketak, eta premiazko neurriak hartzea energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan eta elektrizitatearen gaineko zergan.- **2021 - 03934 xedapena - 1 or.**

## **E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

### **2021/11/30**

- Kontseiluaren 2021/2098 (EB) Erabakia, 2021eko irailaren 24koa, berriz ere luzatzen duena 2020/430 (EB) Erabakiaren bidez ezarritako Kontseiluaren Barne Araudiaren aldi baterako salbuespena, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Batasunean bidaiatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta. **L427/194 xedapena - 2 or.**

### **2021/12/01**

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2101 (EB) Zuzentaraua, 2021eko azaroaren 24koa, 2013/34/EB Zuzentaraua aldatzen duena zenbait enpresa eta sukurtsalek sozietateen gaineko zergari buruzko informazioa dibulgateari dagokionez (Testu egokia EEEen ondorioak izan ditzan). **L429/01 xedapena - 14 or.**
- Batzordearen 2021/2113 (EB) Betearazpen Erabakia, 2021eko azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez baliokidetasuna ezartzen den El Salvadorreko Errepublikak igorritako COVID-19aren egiaztagirien eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/953 (EB) Erregelamenduaren arabera igorritako egiaztagirien artean, Batasunaren barruan zirkulazio librerako eskubidea errazteko (Testu egokia EEEen ondorioak izan ditzan). **L429/152 xedapena - 3 or.**

### **2021/12/02**

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2118 (EB) Zuzentaraua, 2021eko azaroaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den ibilgailu automobilen zirkulazioak eragindako erantzukizun zibilarren aseguruari eta erantzukizun hori ziurtatzeko betebeharraren kontrolari buruzko 2009/103/EE Zuzentaraua ( 1 ). **L430/1 xedapena - 23 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO